



BAKEAREN, BIZIKIDETZAREN
ETA GIZA ESKUBIDEEN
ZUZENDARITZA NAGUSIA

TERRORISMOAREN
BIKTIMENTZAKO
LAGUNTZAK
2020



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

ARGITARATZEN DU:

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua
Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra

DISEINUA ETA MAKETAZIOA: Horixe Diseño

INPRIMATZEN DU: Navaprint

© Nafarroako Gobernua-Gobierno de Navarra

L.G.: NA 1802-2020



TERRORISMOAREN
BIKTIMENTZAKO
LAGUNTZAK

AURKIBIDEA

1. LAN ARLOA	7
1.1. TERRORISMOAREN BIKTIMAK KONTRATATZEKO HOBARIA.....	7
1.2. AUTONOMOEN TARIFA LAU BEREZIA	7
1.3. LABORA PROGRAMA	7
1.4. LAN-ESKUBIDEAK	7
2. PENTSIOAK	7
2.1. TERRORISMO, BALIAEZINTASUN, ALARGUNTASUN, ZURZTASUN EDO GURASOEN ALDEKO EKINTZEK ERAGINDAKO APARTEKO PENTSIOAK ...	7
3. HEZKUNTZA	8
3.1. IKASTEKO LAGUNTZAK, TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO APIRILAREN 28KO 9/2010 FORU LEGEAREN ARABERA	8
3.2. BARNE MINISTERIOAREN IKASKETETARAKO LAGUNTZAK	8
3.3. ESTATUKO IKASKETA-ZENTRO PUBLIKO OFIZIALETAKO TASEN SAL- BUESPENA	9
3.3.1. TASEN SALBUESPENA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN	9
3.4. DERRIGORREZKOAK EZ DIREN IRAKASKUNTZEN TASETATIK SALBUESTEA	9
4. ETXEBIZITZA	9
5. ARRETA PSIKOLOGIKOA	10
6. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA	10
7. ATZERRITARRENTZAKO ERREGULARIZAZIO ADMINISTRATIBOA: NAZIONALITATEA EMATEA.....	10
8. BONU SOZIAL ELEKTRIKOA	11
9. TERRORISMOAREN BIKTIMA EDO TERRORISMOAREN BIKTIMAREN SENIDE ZIURTAGIRIA LORTZEA	11
BIKTIMEN ARRETARAKO BULEGOA	12

AURKEZPENA

Nafarroako Gobernuako Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Biktimen Arretarako Bulegoak bere zeregin nagusien artean ondokoak ditu:

- Biktima bakoitzaren behar pertsonal eta familiakoak baloratzea.
- Dagozkion eskubideen, baliabideen eta zerbitzuen inguruko informazioa erraztea.
- Dagozkion prestazioak eskuratzeko Nafarroako Gobernuari, Barne Ministerioari eta Terrorismoaren Biktimen Fundazioari eginiko eskabideak tramitatzen laguntzea eta horien jarraipena egitea.

Esku artean duzun informazio-dokumentu honetan lan-eremuari, pentsioei, hezkuntza-eremuari, etxebizitzari, osasun-eremuari, eremu judizialari, atzerritarrentzako administrazio-erregularizazioari eta biktimei arreta emateko beste gizarte-prestazio eta baliabide batzuei buruzko laguntzak jorratzen dira.

1. LAN ARLOA

1.1. TERRORISMOAREN BIKTIMAK KONTRATATZEKO HOBARIA, kontratatutako pertsona bakoitzeko Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko enpresa-kuotan aplikatzekoa. Kontratu mugagabeak (1.500 euro urtean 4 urtez) eta aldi baterako kontratuak (600 euro urtean, kontratuaren indarraldi osoan).

☉ **ESKAERA:** Gizarte Segurantza. Enpresa kontratatzaileak eskatu behar du hobaria.

1.2. AUTONOMOEN TARIFA LAU BEREZIA: gertakari arruntengatiko kotizazioa murriztea, hasierako alta eragiten dutenean edo aurreko 5 urteetan alta egoeran egon ez direnean.

☉ **ESKAERA:** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. Autonomoak eskatu behar du murrizketa.

1.3. LABORA PROGRAMA: enplegua bilatzen laguntzea, terrorismoaren biktimen laneratzea erraztuz, lan-aholkularitzaren eta enpresekiko bitartekaritzaren bidez.

☉ **ESKAERA:** Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia.

1.4. LAN-ESKUBIDEAK: lan-denbora eta mugikortasun geografikoa berantolatzea.

☉ **ESKAERA:** Enpresa edo administrazio kontratatzailea.

INFORMAZIO GEHIAGO: <http://www.interior.gob.es/> (Herritarrentzako zerbitzuak/terrorismoaren biktimentzako laguntzak eta diru-laguntzak).

2. PENTSIOAK

2.1. TERRORISMO, BALIAEZINTASUN, ALARGUNTASUN, ZURZTASUN edo gurasoen aldeko ekintzek eragindako aparteko pentsioak. Gizarte Segurantzaren Sistemari, Klase Pasiboen Erregimenean edo gizarte-babeseko ezein araubidetan sartuta ez dauden pertsonak.

☉ **ESKAERA:** Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia, Estatuko Administrazioa edo beste batzuk. Dagokion kotizazio-erregimenaren arabera.

3. HEZKUNTZA

3.1. IKASTEKO LAGUNTZAK, TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO APIRILAREN 28KO 9/2010 FORU LEGEAREN ARABERA:

matrikulari, eskola-materialari, garraioari, jantokiari eta familia-bizilekutik kanpoko bizilekuari buruzko irakaskuntza akademikonegatiko gastuak ordaintzeko diru-laguntzak. Ekintza terrorista baten ondorioz ikaslearentzat berarentzat edo haren guraso, tutore edo zaintzaileentzat garrantzi bereziko kalte pertsonalak sortzen direnean edo ohiko lanbidean aritzeko ezgaitzen dituztenean emango dira. Beharrezkoa da aurrez Hezkuntza Ministerioaren Beken deialdiari heletzea.

☉ **ESKAERA:** Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. Beharrezkoa da ikasteko laguntzen indarreko deialdian ezarritako baldintzak betetzea.

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.educacion.navarra.es/>
(Informazioa/Bekak eta laguntzak)

3.2. BARNE MINISTERIOAREN IKASKETETARAKO LAGUNTZAK

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketako, Gradu edo baliokideko, Masterreko, goi-mailako beste ikasketa batzuetako eta ikastetxe ofizialetako hizkuntza-irakaskuntzako ikasketen gastuak ordaintzeko diru-laguntzak.

Ezintasun iraunkor osoa duten terrorismoaren biktimei, ezkontideei, izatezko bikoteei, seme-alabei, gurasoei, anai-arrebei, tutoreei eta zaintzaileei edo hildakoen senideei zuzenduta. Laguntza hauek bateraezinak dira kontzeptu berberengatik beste Administrazio batzuetatik jasotakoekin.

☉ **ESKAERA:** Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia.

INPRIMAKIA: <http://www.interior.gob.es/>
(Herritarrentzako zerbitzuak / Eskaera-eredua / Ekintza terroristen biktimentzako zerbitzuak / Ikasketetarako laguntzen eskaera).

INFORMAZIO GEHIAGO: <http://www.interior.gob.es/>
(Herritarrentzako zerbitzuak/ekintza terroristen biktimentzako laguntzak/laguntzak/hezkuntza-laguntzak)

3.3. ESTATUKO IKASKETA-ZENTRO PUBLIKO OFIZIALETAKO TASEN SALBUESPENA

Unibertsitate publikoetako titulu ofizialengatik tasa akademikoak ordaintzeko laguntza (titulu propioak ez dira sartzen).

🕒 **ESKAERA:** Dagokion ikastetxe publiko ofiziala.

3.3.1. TASEN SALBUESPENA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN.

Tasa akademikoen salbuespen osoa; administrazio-zerbitzuengatik tasa ordaindu beharko da.

Biktimei zuzendua, baita beren seme-alabei ere.

🕒 **ESKAERA:** Nafarroako Unibertsitate Publikoa.

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.unavarra.es/>

3.4. DERRIGORREZKOAK EZ DIREN IRAKASKUNTZEN TASETIK SALBUESTEA

Biktimei zuzendua, baita ezkontide-bikote eta seme-alabei ere.

“Pablo Sarasate” musika Kontserbatorio Profesionala, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioa, Dantza Eskola, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialak, Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala, helduentzako euskara ikasketak Zubiarte Euskaltegian, Diseinuko Goi Mailako Ikasketak.

🕒 **ESKAERA:** Dagokion ikasketa zentroa.

4. ETXEBIZITZA

Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean ezarritako baldintzak betezen dituzten biktimek lehentasuna dute babes publikoko etxebizitzaren esleipenean. Terrorismo-ekintzen ondorio diren eta % 65eko desgaitasun-maila edo handiagoa eragindako ondorioak dituzten pentsonentzat da, baita hildakoen ezkontideentzat eta lehen mailako senideentzat ere, betiere ofizialki halakotzat aitortutako terrorismo-ekintzen ondorioak badira.

🕒 **ESKAERA:** Lurzoruaren eta Etxebizitzaren Nafarroa, S.A. (NASUVINSA).

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.nasuvinsa.es/>

5. ARRETA PSIKOLOGIKOA

Berehalako laguntza psikologikoa emango zaie bai biktimari, bai haren senideei, odol-ahaidetasuneko 2. mailara arte, edo haiekin modu egonkorrean bizi direnei, atentatuak gerora eragindako edo agerian utzitako nahasmendu psikologikoen jarraipena egiteko.

📍 **ESKAERA:** Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Biktimen Arretarako Bulegoa.

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://pazyconvivencia.navarra.es/>

6. DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOA

Terrorismoaren biktima izateagatik lotura duten, eratoritzen diren edo haren ondorio diren prozesu judizialetan.

Jarduera terroristaren ondorioz kalte fisikoak eta/edo psikikoak jasane dituzten pertsonentzat.

📍 **ESKAERA:** Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia.

7. ATZERRITARRENTZAKO ERREGULARIZAZIO ADMINISTRATIBOA: NAZIONALITATEA EMATEA.

Borondatezkoa da, ez deusen truke edo opari gisa emana, eta ez dago administrazio-prozeduraren arau orokorren mende. Estatuko Gobernuak emanen du, edo ez diskrezioz, errege-dekretu bidez, salbuespenezko inguruabarririk ba ote dagoen aztertu ondoren.

Barne Ministerioko Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiak errekonozimendua emandako biktimei zuzendua dago, behar den ziurtagiriarekin, Espainiako nazionalitatea lortu ahal izateko.

📍 **ESKAERA:** Barne Ministerioaren Atzerritarren Bulegoa.

8. BONU SOZIAL ELEKTRIKOA

Terrorismoaren biktimatzat aitortutako pertsonentzat, baldin eta urtero ezarritako baldintza ekonomikoak betetzen badituzte.

TERRORISMOAREN BIKTIMEN ERRENTA-MUGAK (€ GORDINAK URTEAN)					
KATEGORIAK	PENTSIODUNAK	URTEKO ERRENTAREN MUGA BETETZEN DUTEN FAMILIA-UNITATEAK			FAMILIA UGARIAK
		ADIN TXIKIKORIK EZ	ADIN TXIKIKO 1	ADIN TXIKIKO 2	
% 25eko deskontua	Gutxieneko pentsioa duten familia-unitateko kide pentsiodun guztiek. *	15.039,18	18.798,98	22.558,77	Errenta-baldintza ez exigigarria
% 40ko deskontua	7.519,59	7.519,59	9.399,49	11.279,39	15.039,18

* Beste errenta batzuk jaso ditzakete, baldin eta urtean 500 € gordin gainditzen ez badituzte.

📍 **ESKAERA:** Kontrataturako konpainia elektrikoa.

INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.bonosocial.gob.es/>

9. TERRORISMOAREN BIKTIMA EDO TERRORISMOAREN BIKTIMAREN SENIDE ZIURTAGIRIA LORTZEA

Terrorismoaren biktima edo terrorismoaren biktimaren senide ziurtagiria lortzea, dagozkien laguntzetarako:

- Honako hauek bidali certificados.vt@interior.es helbidera: eskaerazaileren NANaren kopia, familia-liburua (terrorismoaren biktimen senideak izanez gero) eta eskaera-inprimakia, Barne Ministerioaren webgunean beteta eta sinatuta (Herritarrentzako Zerbitzuak / Eskaera eredu / Ekintza Terroristen Biktimentzako Laguntzak): www.interior.gob.es

📍 **BESTE ESKAERA BATZUK:**

<http://www.interior.gob.es/web/servicios-al-ciudadano/modelos-de-solicitud/ayudas-a-victimas-de-actos-terroristas>

HARREMANETARAKO:

Mail: apoyo@interior.es

T: 915 37 24 42

INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO ESKATU HITZORDUA:

BIKTIMEN ARRETARAKO BULEGOA

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia
Arrieta Kalea 12, 5. solairua
31002 Iruña

MAIL

oficina.atencion.victimas@navarra.es

TELEFONOAK

848 42 60 17 / 848 42 57 79

WEB

<https://pazyconvivencia.navarra.es/es/oficina-de-atencion-a-victimas>